



Haurreskolak Partzuergoa eta lan gatazkak:

Preco-a

STEILAS sindikatuak LAB sindikatuak Haurreskolak Partzuergoaren aurka aurkeztutako *Preco*-an parte hartu du gaur. *Preco* bat lan gatazkak argitzeko Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluak eskaintzen duen baliabide doakoa da. Beraz:

Bi izan dira gaur *Preco* horren bitartez argitu nahi izan diren gaiak:

- Lehenengoa, 2020ko urtarrilaren 9an LAB sindikatuak enpresarekin sinatu zuen aurreakordioan jasotako kudeaketa-langileen lanpostuen zerrendaren aldaketari buruzkoa da. Gai honi dagokionez, **STEILAS** sindikatuak azpimarratu du beharrezkoak diren lanpostu berriak sortzeko kudeaketa langileen lanpostuen zerrenda aldatu behar dela. Hortaz, puntu honen alde ezin izan gara adierazi, kudeaketa langileen lanpostuak sortzeko hezitzaileenak desagerraraziko litzuketelako. Horrela burutuko balitz, Haurreskolak Partzuergoan lanpostuen galera bat egongo litzateke eta, ondorioz, aurrekontuaren murrizketa.
- Bigarren xedeari dagokionez, aldiz, **STEILAS** sindikatuak bat egin du Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileen ordezkapenak betetzen hasteko berehalako behararekin, 2018ko Ordezkoen Araudiak jasotzen dituen terminoen baitan.

Puntu honetan, gogoratu behar dugu Eusko Jaurlaritzak eta Haurreskolak Partzuergoak 2018ko akordioa sinatu zutenean hau garatzeko eta betetzeko hartu zuten konpromisoa. Zoritxarrez, ez da horrelakorik gertatu, **STEILAS** sindikatuak uste zuen bezala. Horregatik, betetzen ari ez diren arau eta konpromiso horiek guztiak gainditzea eta gaur egungo errealitatera egokituko litzatekeen Lan Hitzarmen kolektibo oso berri baten negoziatioari hasiera ematea eskatzen dugu. Hau izan beharko litzateke momentu honetan Haurreskolak Partzuergoaren negoziatio esparrua. Negoziatio horrek blokeatuta jarraitzen duen bitartean, ezinbestekoa izango da 2018ko martxoko akordioak jasotzen dituen puntu guzti-guztiak martxan jartzea eta errespetatzea.

Preco-a adostasun gabe bukatu da eta, ondorioz, aurkeztutako gatazka konpontzeko bide judiziala irekitzeko aukera dago orain.

Euskal Herrian, 2020ko azaroaren 4an.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus

